

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat sortzerakoan oso garrantzitsua da zer kostu edukiko dituen finkatzea. Beraz, atal hau gure negozioaren kostuak zeintzuk diren argitzeko erabiliko dugu, hau da, gure kostuak zehazki zeintzuk diren azalduko ditugu. Horrela, zenbateko kostu-egitura edukiko dugun kalkulatuko dugu. Bi zatitan banatuko dugu: alde batetik, hasierako kostuak, eta bestetik, hilabeteko kostuak. Hilabeteko kostuetan kostu aldakorrak eta kostu finkoak jarraian adieraziko ditugu.

Lehenik eta behin, gure proiektuak ondo funtzionatzeko hasierako inbertsioak izatea funtsezkoa da, horregatik hasierako kostuak edukiko ditugu eta inbertsio bat egin beharko dugu. Hurrengo taulan gure proiektuari hasiera deigarri bat emateko gure kostuak azalduko ditugu.

1. Hasierako inbertsioak

HASIERAKO INBERTSIOAK		
Materiala	PORTATILA	399,99€
	BALOIAK (4)	23,96€
	MAHAI-JOLASAK (3)	60€
	PETOAK (15)	44,85€
Altzariak	MAHAIK (5)	625€
	AULKIAK (20)	1818,4€
	ARMAIRUA	160€
Ekipamendua	ARBELA	143,86€
	PROIEKTOREA	340,94€
	PANTAILA	43,90€
Diseñua	ZUZEN ZERBITZUA (5)	75€
	MJO OSUNA DISEÑO DE INTERIORES	2000€
Telefono finkoa		17,00€
Kartelak (publizitatea)		20€

GUZTIRA:	5772,9€
-----------------	----------------

Guztira 5772,9€ ordaindu beharko ditugu enpresa aurrera eramateko.

2. Hilabeteko kostuak

KOSTU FINKOAK	
Lokala	Gipuzkoako foru aldundia (0€)
Soldatak	Enpresarentzat: 2.000€ x 5= 10.000€
Bankuari mailegua itzuli	60€
Mugikor tarifa	40€
Host	9,08€
Aseguruak (erantzukizun zibila)	1.200€ urtero 1.200€ : 12= 100€/hilabetero
GUZTIRA:	10.359,08€ hilabetero

Taula honetan ikusten den moduan, gure negozioa mantentzeko, hilabetero 10.359,08€ beharko ditugu. Lokalari dagokionez, ez dugu ordaindu beharko, gure kasuan Donostiako Udalaren bidez lortuko dugulako, beraz elkartera etorriko diren nerabeentzat zerbitzua dohain izango da.

KOSTU ALDAKORRAK	
Eskurtsioak (2)	1000€
GUZTIRA:	1000€

Esan bezala, kostuen barruan aldakorrak ere badira, hau da, batzuetan gehiago izango direnak eta besteetan gutxiago. Gure elkartearen saioak dibertigarriak izateko, noizbehinka eskurtsioren bat egitea pentsatu dugu. Horrela, nerabeek inguruak ezagutu ditzakete, gainera haien bakardade eta segurtasun-gabeziak ahaztuz. Eskurtsioen prezioa, lekuaren, jardueren, garraioaren, kopuru eta tenporadaren arabera alda daitezke, adibidez, hilabete batean 3 egiten badira eta beste baten 5, prezioak aldaketa nabarmena izango du. Hala ere, aurreikusi dezakegun hilabete bakoitzean 2 eskurtsio egingo ditugula.

Aurreko tauletako datuak kontuan hartuta aurreikus dezakegu hilabeteko kostu totalak 11.359,08€koak izango direla.